

# ALERTA KOSTALDEAN

Asteazkena, 2019ko azaroaren 20an

Lekua: Donostiako Aquarium

Goizeko ordutegia: 9:30tik 13:00ra

## EGITARAUA

Azaroaren 20an, asteazkena, 09:30ean, Donostiako Aquariumeko Auditoriumean jardunaldi bat egingo da. Jardunaldi horretan itsasoak eta atmosferak kostaldean sorrarazten dituzten arazo nagusiak azalduko dira larrialdietako ikuspegi integral batetik, eta Meteorologia kaltegarriaren eragina jasaten duten sektoreekin lotutako abisu-, alerta- eta alarma-sistemak hobetzeko Euskadin egiten ari diren lanen berri emango da. Eztabaidarako mahai-inguru bat ere egingo da eta horretan bertaraturakoek parte hartu ahal izango dute.

Segurtasun Sailak programa hau prestatu du:

**9:30 "Ongi etorria eta ekitaldiari hasiera ematea"**

*Estefanía Beltrán de Heredia andrea. Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuneko sailburua.*

**9:45 "Itsas inpaktua eta Larrialdiak":** Itsasoak kostaldean sorrarazten dituen arazoei buruzko ikuspegi globala eta arazo horiek gubxitzeko Administrazioak egiten ari diren lanak. *Jose Antonio Aranda (Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza).*

**10:15 "Kalteetatik abisuetara":** Inpaktuen azterketa, horiek sorrarazten dituzten egoerak eta iragarpen hidro-ozeano-meteorologikoen eta abisu-, alerta- eta alarma-sistemaren arteko erlazioa. *Santiago Gaztelumendi (Tecnalia).*

**10:40 Atsedenaldia. Kafea**

**11:00 "Itsasaldiak uholdea dakarrenean":** Estuario zehatz batzuetan olaturik gabe ere uholdeak gerta daitezke, nahikoa da itsasaldi biziak edota ur-emari handiak izatea. Kostaldeko UAHEak. *Rubén Santos (URA – Uraren Euskal Agentzia).*

**11:20 "Inpaktuak portuetan":** Portuen erabiltzaileek eta kudeatzaileek hainbat arazori aurre egin behar izaten diete, esaterako hauei: portuko agitazioa, portuak ixtea edo kai-muturrak gainditzten edo zipiritintzen dituzten olatuak. Erabiltzaile eta gestore horientzako tresnak hobe ditzakegu? *Adolfo Uriarte (AZTI).*

**11:40 "Hondartzetako segurtasun-eredu baterantz?":**

Arriskuaren ebaluazioa hauen menpean dago: hondartza bakoitzaren erabiltzaileen dinamika, eguraldia eta itsasoaren egoera. Hondartza bakoitzean erabiltzaileen gaineko inpaktuen eta iragarpen ozeano-meteorologikoen arteko lotura aurkitu nahi dugu.

*Irantzu Sotés / Mercedes Maruri (UPV/EHU).*

**12:00 Mahai-ingurua – Eztabaida: "Hauxe da bidea?":** Mahai-inguruan hizlariak egongo dira eta bertaraturakoek ere galderak zein oharrek eginez modu aktiboan parte hartu ahal izango dute Moderatzailea Pedro Anitua (Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria) izango da.

**13:00 Jardunaldiari amaiera ematea**

